



**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI 2024-2025 IKASTURTEKO ITUNA OFIZIOZ ALDATZEARI, 2022KO EKAINAREN 21EKO AGINDUAREN 17. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKOAREN ARABERA.**

I.- Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez, hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunaren araubidea baliatzeko deialdia egin zen, unitate zehatzak zehaztuta, bai eta laguntzako langile osagarriak ituntzeko deialdia ere, 2022-2023 ikasturtetik 2027-2028 ikastertera bitarteko indarraldiarekin.

Aipatutako aginduaren 17. artikulua ("Ofizioz aldatzea") honako hau ezartzen du:

*4.- Ezohiko aldaketa ofiziozkoa izango da; egiten den ikasturte berean ditu ondorioak, eta gehi- tzea nahiz murriztea ekar dezake, ondorengo apartatu hauetako kasuren bat egonez gero:*

a) *Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gehitzea dakarren ezohiko alda- keta honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:*

*– Ikasle berriak sartzea ohiko onarpen-prozeduratik kanpo, baldin eta beste ikastetxe batean plaza librerik ez badago eta onarpena ohiko prozeduratik kanpoko onarpena arautzen duen araudiaren arabera egin bada.*

*Ikasle errepikatzaileen matrikulek ez dute inolako aldaketarik eragingo.*

*– Ikasleek ikastetxean jarraitzea bermatzeko eskubidea erabiltzea, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan adierazi bezala, ikasle-kopuruak ratioak eta gutxieneko ikasle-kopurua betetzen baditu.*

*– Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo itunpeko unitateetan eskolatutako ikasleen konpentsazioa gehitzea.*

b) *Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gutxitzea dakarren ezohiko alda- keta honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:*

*– Emakidarako kontuan izandako ikasleei buruzko datuak eta egiaz eskolatutakoak, edo horien hezkuntza-laguntzako berariazko premiak, bat ez etortzeagatik, ikasturtea hasitakoan eta ikasturtean zehar.*

*- Ikasleen hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzekoak gutxitzeagatik*

II. Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 12ko Aginduaren bidez ebatzi zen unitate zehatzak zehaztea, bai eta 2024-2025 ikasturterako laguntzako langile osagarriak ituntzea eta 2024-2025 ikasturtetik 2027-2028 ikastertera arteko hezkuntza-itunen araubidea eskuratzea ere.

III.- Ikasturtea hasita, egiaztatu da desorekak daudela dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren ikasleen datuen eta eskolatutako ikasleen benetako datuen artean.

IV.- Hezkuntza Sailean dagoen dokumentazioaren arabera, bidezkoa da administrazio- prozedura hastea agindu honen eranskinean zerrendatutako ikastetxeetan 2024-2025 ikasturterako itundutako unitateak eta/edo langile osagarriak aldatzeko.

Horiek horrela, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Agindu honen eranskinean zerrendatutako ikastetxeetan 2024-2025 ikasturterako itundutako unitateak eta langile osagarriak aldatzeko administrazio-prozedura hastea.

**Bigarrena.-** Eranskin honetan zerrendatzen diren ikastetxeei 10 egun balioduneko epea ematea, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan 2024-2025 ikasturteko ituna ofizioz aldatzeko proposamena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ikastetxeak, egoki iritziz gero, alegazioak egin eta dagokion dokumentazioa aurkez dezan.

## **ERREKURTSOA**

Agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu, aldaketa hau ebazten duen aginduaren aurka jar daitezkeen errekurtsuak gorabehera.

Sta...: Begoña Pedrosa Lobato  
Hezkuntza Sailburua

## **ERANSKINA I**

014505- CPEIPS Artxandape Ikastola HLBHIP

014630- CPEIPS Calasancio HLBHIP

014657- CPEIPS Jesuitinas Bilbao La Inmaculada HLBHIP

014629- CPEIPS Berrio-Otxoa HLBHIP

014637- CPEIPS El Ave María HLBHIP

014641- CPEIPS Esclavas SC - Fátima HLBHIP

014651- CPEIPS Ikasbide HLBHIP

014698- CPEIPS Scientia San Pedro HLBHIP

014709- CPEIPS Trueba de Artxanda HLBHIP

015845- CPEIPS Salesianos Deusto HLBHIP